

2014



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

ESCUELA UNIVERSITARIA DE MAGISTERIO DE BILBAO  
BILBOKO IRAKASLEEN UNIBERTSITATE ESKOLA

## HAUR HEZKUNTZAKO GRADUA

2013-2014 ikasturtea

IKAS – KOMUNITATEAK: SOLASALDI DIALOGIKO  
LITERARIOAK ETA IRAKUR- LAGUNA,  
ETXEBARRIKO KUKULLAGA ESKOLAN

Egilea: Maitane Zelaia Txarramendieta.  
Zuzendaria: Miren Nekane Beloki Arizti.

2014ko ekainaren 11an.





## AURKIBIDEA

### ABSTRACT

1. SARRERA.....	1
2. HELBURU OROKORRAK .....	3
3. MARKO TEORIKOA .....	3
4. METODOLOGIA .....	14
5. KUKULLAGAKO HISTORIA.....	15
6. KUKULLAGA ESKOLAKO SOLASALDI DIALOGIKO ETA IRAKUR-LAGUNAREN PROIEKTUA 19	
6.1. SARRERA.....	19
6.2. HELBURUAK: .....	20
6.3. METODOLOGIA.....	20
6.4. BALIABIDEAK.....	21
6.5. EGUTEGIA .....	22
7. ONDORIOAK .....	23
8. BIBLIOGRAFIA .....	26



## ABSTRACT

Egungo informazioaren gizartean, etengabeko aldaketa sakonak jasaten eta sortzen ditugu, halaber gure gizabanako harremanetan ere. Hala ere, hezkuntzak oraindik ez du aldaketa handirik egin, izan ere, nahiko estatikoa izaten jarraitzen du eta bertan ematen diren harremanak zeharo hierarkikoak dira. Honengatik guztiagatik, ikerketa honen xede nagusia, Ikas-Komunitateak eta honen barruan dagoen Etxebarriko KUKULLAGA LHI (Bizkaia) aztertzea izango da. Horrez gain, eskolarekin batera diseinatu dudana proiektua aurkeztuko dut, zeinean Ikas-Komunitateen bi jarduera burutzen diren: irakur-laguna eta solasaldi dialogiko literarioak. Bertan, Lehen Hezkuntzako 6. mailako eta 5 urteko ikasleek parte hartu dute.

Aipatzekoa da lortutako emaitzak guztiz baikorrak izan direla eta epe-laburrerako ezarritako helburuak lortu direla. Horrez gain, epe-luzerako helburuak hein handi batean beteko direla aurreikusten da. Beraz, argi dago, zentroetan antolakuntza egoki bat ematen bada, Ikas- Komunitateen proiektuarekiko inplikazioa badago eta komunitatearen kohesioa lortzen bada, hezkuntza sistema hein batean alda daitekeela. Hori gertatuz gero, edozein motatako pertsonak hezkuntza emaitzarik onenak lor ditzake eta baita informazioaren gizarte honetan jarduten ikas dezake ere.

**Hitz gakoak:** Ikas- Komunitateak, ikaskuntza dialogikoa, gizarte inklusioa, hezkuntza inklusioa, hezkuntza, solasaldi dialogiko literarioak, irakur-laguna.

En esta sociedad de la información, en la que todo parece haber cambiado incluso nuestras relaciones como seres humanos, la educación sigue casi completamente estática y basándose en unas relaciones exclusivamente jerárquicas. Por ello, este trabajo se basa en analizar las Comunidades de Aprendizaje y al CEP KUKULLAGA de Etxebarri (Vizcaya), el cual forma parte de este proyecto. Aparte de esto, veremos el proyecto que he diseñado en colaboración con el colegio; el cual lleva a cabo dos actividades de las CC.AA.: el apadrinamiento lector y las tertulias dialógicas literarias. En éste, han tomado parte alumnos de 6º de Primaria y de 5 años. .

Los resultados obtenidos han sido completamente favorables, cumpliéndose así los objetivos propuestos a corto plazo, y con gran esperanza de lograr en un futuro próximo los de largo plazo. Por ello, observamos que con una organización apropiada en el centro, una implicación por el proyecto de las CC.AA. y una buena cohesión de toda la comunidad, es posible cambiar el sistema educativo en cierta medida. Y, por supuesto, conseguir que todo tipo de persona obtenga los máximos resultados académicos y se forme debidamente para interactuar en esta sociedad de la información.

**Palabras clave:** Comunidades de Aprendizaje, aprendizaje dialógico, inclusión social, inclusión educativa, educación, tertulias dialógicas literarias, apadrinamiento lector.

---

In today's *information society*, in which everything seems to have changed, even our relationships as human beings, education rests completely static and based on exclusively hierarchical relationships. Therefore, this project focuses attention on the analysis of the so-called *learning communities* and the CEP KUKULLAGA in Etxebarri (Biscay), which is a part of the project. In addition to that, it will be shown the project I

have designed in collaboration with the school; which is carrying out two activities of the *learning communities*: the reading buddies and the dialogical literary gatherings.

The results obtained have been completely favourable, meeting that way the established short time targets, and with great hope that in a near future the long term targets will be met. As a consequence, we notice that with a proper organisation of the centre, an involvement of the *learning communities* with the project and an adequate cohesion of the whole community, it is possible to change the education system to some extent. And of course, by that way, we must achieve that every kind of person gets the maximum academic results and that everybody is trained so as to interact in the *information society*.

**Key words:** learning communities, dialogical learning, social inclusion, educational inclusion, education, dialogical literary gatherings, reading buddies.

## 1. SARRERA

Gradu Amaierako Lan hau **Ikas- Komunitateak** aztertzeraz bideratuko dut. Honen inguruan arakatu eta irakurri ostean, hezkuntzarako eta orokorrean gizarterako oso interesgarriak direla deritzot eta.

Ikas-Komunitateko metodologia zeharo desberdina izanik, hezkuntza sistemarentzako oso eredu egokia iruditzen zait. Bertan erabiltzen den metodologia, bultzatzen diren printzipioak eta lortu nahi diren emaitzak proposamen ezin hobeak sortzen dute.

Ikas-Komunitateei buruzko datu zehatzagoak aurrerago emango ditut, baina orain proiektu honen barruan hain garrantzitsuak diren solasaldi dialogiko literario eta irakur-lagunari buruzko informazio labur bat eskainiko dut. Izan ere, lan honetan zehar Etxebarriko Kukullaga LHI-rekin batera diseinatutako proiektua azalduko dut, zeinean bi ekintza hauek ardatz nagusiak diren.

Solasaldi dialogikoen helburua, bere izenak adierazten duen moduan, ezagutza eta esanahia solasaldi baten bidez eraikitzea da, horretarako, noski, dialogo ezinbesteko erreminta bihurtzen da. Bere ardatza, aurrerago ikusiko ditugun ikaskuntza dialogikoaren 7 oinarrietan kokatzen da. Solasaldi hauen bitartez ikasleen arteko harremanak sustatzen dira eta ez zaio inolako garrantzirik ematen haien arteko desberdintasunei, hala nola: adina, generoa, kultura ... Bestalde, aipatzekoa da, solasaldi dialogikoak ez direla gai bakar batean zentratu behar, edota zerbait zehatza ikasteko balio soilik; guztiz kontrakoa, hainbat motatako solasaldi dialogiko aurki ditzakegu eta beti gure helburu eta beharren arabera molda ditzakegu. Hauek dira solasaldi dialogiko mota nagusiak:

- Solasaldi dialogiko literarioa.
- Solasaldi dialogiko musikala.
- Solasaldi dialogiko artistikoa.
- Solasaldi dialogiko matematikoa.
- Solasaldi dialogiko zientifikoa.
- Etab.

Kukullaga eskolan burutuko den proiektua ***solasaldi dialogiko literarioa*** izango da, hain zuzen ere. Bertan eskolako hezitzaileek, ikasleek eta ni neuk parte hartuko dugu, horretaz gain hauren familiak ere modu inplizitu batean sartuko dira proiektu honen barruan. Esan beharra dago, proiektu honen antzeko batzuk beste eskoletan jadanik burutu egin direla, horregatik erreferentzia bat daukagu eta emaitzak aurreikusi ditzakegu. Izan ere, behinik behin Ikas- Komunitateetan parte hartzen duten eskola batzuk Durango batzen dira ideiak konpartitzeko, esperientziak azaltzeko eta haien elkarlana sustatzeko. Horregatik, beste arrazoi batzuen artean, Kukullaga eskolak erabaki egin du proiektu honetan murgiltzea, beste eskoletan egin dela ikustean, baina beti bere beharretara moldatuz.

Erabaki hori hartu ondoren, proiektua zehazten hasi ziren. Horretarako beharrezko materialaz hornitu dira: Haur Hezkuntzako hurrei zuzendutako ipuinak. Proiektuaren lehenengo fasean liburuxka horiek 6. mailako ikasleen artean banatuko dira, bakoitzak bat izango du eta euren kabuz ipuina irakurtzen eta hurrekin egingo duten lanketa prestatzen hasiko dira. Ikasle bakoitzari, Haur Hezkuntzako 5 urteko gelako ikasle bat egokituko zaio, beraz, bikoteka jarriko dira ipuina lantzeko, ***irakur- laguna*** deritzona praktikan jarritz. Seigarren mailako ikasleak 5 urteko haurrari ipuina irakurriko dio, ondoren orrialde bakoitzetik Haur Hezkuntzako ikasleak gustuko duen hitza azpimarratuko du hurrengo saioan talde handian landu ahal izateko. Honen ostean, hurrek etxera eramango dute ipuina eta haien familiekin irakurtzeko aukera izango dute

berriz ere, modu horretan, proiektu hau ez da bakarrik eskolaren barruan geratuko, familien inplikazioa bultzatuko baita.

Hori guztia burutu eta gero, solasaldi dialogiko literarioa egingo dute ikasle guztiek, talde handian, haien tutoreekin. Saio horretan, bakoitzak landutako liburuaz hitz egiteko aukera izango du eta modu horretan hainbat konpetentzia landuko dituzte.

## 2. HELBURU OROKORRAK

- Ikas- Komunitateen oinarriak, funtzioak eta historia ezagutzea.
- Solasaldi dialogiko literarioen funtzioaz eta garrantziaz jabetzea.
- Kukullaga eskolako Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako ikasleak bateratzen dituen proiektu honen partaide izatea.
- Proiektu honen emaitzek Ikas- Komunitatearen helburuak bermatzen dituzten konprobatzea.

## 3. MARKO TEORIKOA

Denongatik jakina da gizartea eta bertako subjektuak ez direla pasiboak, izan ere horrela adierazi zuen Paulo Freirek askotan (Aubert, A.; Flecha, A.; Flecha, R; García, C.;



Racionero, S.; 2008: 152). Subjetuek etengabe aldaketak sortu eta jasaten dituzte, honezkero, gizartea dinamikoa da guztiz. I. eta II. Industrializazioak gertatu zirenetik, mendebaldeko gizarte guztiek izugarritzko bira eman dute arlo guztietan, hala nola, ekonomian, bizimoduan, medikuntzan, jakintza, usteetan... etab. Hori gutxi balitz, egun bizi garen XXI. mende hau, IKTen mendea bihurtu da, hau da, teknologiaren eta informazioaren mendea. Hauek guztiek aldaketa handiagoak eta azkarragoak sortu dituzte aurretik aipatutako herrialdeetan eta baita beste guztietan ere. Izan ere, globalizazioa deritzon fenomenoaren ezagutu izan dugu azken hamarkada hauetan. Gizarte honetan bizi garen pertsonok behar desberdinak ditugu eta baita ikuspegi desberdinak ere. Horrek guztiak, gure jokabide, pentsamendu eta harremanetan du isla. Bira dialogikoa deritzona gertatzen ari da, informazioa inoiz baino gehiago eskuragarri daukagu eta momentu oro gure harremanak dialogikoak dira. Adibidez lehen aitak, familiako burua zena, alabari inposaketa batzuk jartzen zizkion, zeinak bete behar zituen dialogorik ez zelako ematen, baizik eta hierarkia bat errespetatzen zen. Edota beste adibide bat, berrogeita hamar urteko etxeko andre batena, zeina lagun batekin hitz eginez planteatzen hasten den nolakoa izango litzatekeen bere bizitza bere senarraz bananduko balitz (Aubert, A. et. al, 2008: 29-30). Ikusten dugun moduan, bi kasu hauetan dialogoak eta informazio trukeak aldaketa sakonak dakartzate gure izaeran eta baita nahi eta beharretan, beraz, orokorrean geure gizartean.

Beraz, argi dago gure gizartea eta bertako kideen harremanak aldatu badira, gure hezkuntza sistema ere aldatu beharko litzatekeela. Ezin dugu jarraitu aurreko mendeetan erabiltzen zen metodologia erabiltzen gure ikuspuntuak eta beharrak aldatu baldin badira. Pertsonen harremanak informazio trukaketan eta dialogoan oinarritzen badira, egungo hezkuntza sistemak hori kontuan hartu beharko luke. Horretan oinarritzen da Paulo Freirek defendatzen zuen ikaskuntza dialogikoa eta gaur egun sortu diren Ikas-Komunitateak ere.

Azkeneko hauek, beraz, ikaskuntza dialogikoan eta berdintasunean oinarritzen dira. Honezkero, gizarte eta hezkuntzaren aldaketa esanguratsua lortzeko xedea duen,

hezkuntza jarduerak biltzen dituen proiektua da Ikas-Komunitatea. Proiektu honen oinarriak komunitatearen elkarrekintza eta parte hartzea dira. Horregatik, ikasleen hezkuntza prozesuan eta garapenean eragiten duten eragile guztiak kontuan hartzen ditu, hala nola: irakasleak, familiak, lagunak, auzokideak, hurbileko elkarteak, boluntarioak ...

Bestalde, ikaskuntza dialogikorako oinarritzko teoriak eta praktikak zazpi printzipiotan laburbil daitezke, hala ere, Ikas-Komunitate bakoitzak zehaztاپen desberdinak egingo ditu hauen inguruan (EJAZN,2002):

1. Berdintasunezko elkarrizketa
2. Kultur Adimena
3. Aldaketak
4. Dimentsio instrumentala
5. Zentzua sortzea.
6. Elkartasuna
- 7.Desberdintasunaren berdintasuna.

Honen ildora, Espainiar estatuko lehenengo Ikas-Komunitatea 1978an sortu zen La Verneda Sant Martí helduentzako heziketa zentroan. Urte batzuen buruan, Bartzelonako unibertsitateko CREAK (*Centro de Investigación en Teorías y Prácticas Superadoras de Desigualdades*) ikerketa batzuk burutu zituen praktika eraginkor hori derrigorrezko hezkuntzan nola aplikatu ahal zen planteatzeko. 1995. urtetik aurrera proiektu honen barruan sartu nahi izan diren eskola guztiei laguntza eskaini die, Nazioarteko Komunitate Zientifikoaren baldintza guztiak betez. Gaur egun, Espainiako estatuan 120 Ikas-Komunitate daude eta hain eraginkorrak bilakatu direnez gero, mundu osora zabaldu egin dira. Izan ere, aurrerago aipatuko dudan "Actuaciones de éxito en las escuelas europeas" txostenaren (INCLUD-ED, 2011) barne agertu dira ikergai gisa, baita horren emaitza positiboak buruzko datuak ere.

Bestalde, Euskal Autonomia Erkidegoan, prozesua geroago hasi zen eta horrela azaltzen da "Euskadiko Ikaskuntza Komunitateak" liburuan (EJAZN,2002):

Euskadiko eskolekin lotuta dauden pertsona askok interes handia zuen CREA taldearen planteamenduak ezagutzeko; izan ere, eskola-porrota eta gizarte-desberdintasunak eskola-aldaketaren bitartez gainditzeko CREA egiten zituen planteamenduak interes handia piztu zuen. Hasiera bateko interes hori aintzat hartuta, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila eta, zehazki, Pedagogi Berrikuntzarako Zuzendaritza CREA taldearekin harremanetan jarri zen. Ikaskuntza Komunitateen esperientzia Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako lau ikastetxetan egitea proposatu zion. Eskola hauetako bi Bizkaian daude, beste bat Gipuzkoan eta, laugarrena, Araban. 1997-1998 ikasturtetik 1999-2000 ikasturtera bitartean, biak barne, Ikaskuntza Komunitateak hasierako denboraldi batez abiaraztea baimentzen zuen Agindua 1997ko irailaren 8an eman zen (1997ko azaroaren 3ko EHAAn). Ikastetxeei beren eremuko laguntza-zerbitzuko aholkulari bat esleitu zitzaaien proiektuan lankidetzan jarduteko. Aholkulari honek eta ikastetxeetako ordezkariak proiektuaren aholkularitzaz eta koordinazioaz arduratuko den taldea osatu dute. Denboraldi hori amaitu denean talde hau beharrezko aholkularitzaz eta koordinazioaz arduratu da, baita esperientzia ezagutarazteaz eta beste ikastetxe batzuetarako prestakuntza egiteaz ere.

Aipatu beharra dago, *Ikas-Komunitateen helburu bikoitza* honako hau dela: *hezkuntza porrota gainditzea eta bizikidetzak hobetzea*. Izan ere, hauek hezkuntza zentroen eraldaketa soziala eta kulturala dakartzate. Aitzitik, hezkuntza sistema tradizionaleko ikastetxe bat izatetik, Ikas-Komunitateko ikastetxea izatera pasatzeko, fase jakin batzuk igaro behar dira. Eraldaketa hori suposatuko dituen faseak hain zuzen ere. Hona hemen jarraitu beharrekoak (EJAZN,2002):

**Sentsibilizazio fasea:** lehenengo fase honetan bilera edo saio informatibo batzuk egiten dira Ikas-Komunitatearen barruan egongo diren agente guztiak kontuan izanda. Hau da, ikasle, irakasle, guraso, elkarre eta abar bildu egiten dira informazioaren gizartearen eta ikasketa komunitatean nondik norakoak azaltzeko. Hauen helburua gaur egungo umeei informazioaren testuinguru berri honetan desberdintasun egoerak gainditzeko behar dituzten baliabideei buruz eztabaidatzea eta hurrek hauek eskuratzeko finkatuko diren programazioa eta tailerrak zehaztea.

**Erabakiak hartzea:** oraingo honetan eskolak lehenengo erabakia hartu beharko du: ikastetxea Ikas-Komunitate bihurtzeko konpromisoa hartu nahi duen edo ez. Proiektua aurrera eraman ahal izateko klaustroaren portzentaje handi bat ados egon beharko da, horrela ez bada proiektua ez da bideragarria izango. Horrez gain, proiektuaren barruan egongo diren beste partaideek ere haien adostasuna erakutsi beharko dute, hala nola, guraso zein auzo elkarrekin.

**Ametsa:** proiektuarekin aurrera egiteko erabakia hartu ondoren, fase honetan hasiera ematen zaio ikastetxea aldatzeko prozesuari. Eskolan dauden eragile guztiek adostu beharko dute gustuko luketen eskola, euren eskola ideala amestuz.

**Lehentasunak aukeratzea eta antolamendua:** testuinguruaren analisiaren eta ametsaren sintesia egin beharko da fase honetan. Horretarako, lan kontseiluak ezartzen dira; irakasleekin, familiarekin, ikasleekin, aholkulariekin eta elkarteko kideekin, lehentasun zehatz batzuk hautatzeko eta beharrak identifikatzeko. Ondoren batzordetan banatu eta ekintza- planak proposatzen dira, azkenik plan guztiak komunean jartzen dira, adostasun batera helduz eta proiektuaren nondik norakoak finkatuz. Modu horretan argi geratzen da zer lortu nahi den eta zer baztertu.

**Abiaraztea:** fase honetan lehentasun bakoitzari dagokionez planifikatutako ekintzak abian jartzen dira. Berrikuntza eta esperimentaziozko prozesu bati hasiera emanez eta Ikas-Komunitatea martxan jarriz. Azkenik, bileretan egindako faseak ebaluatzen dira hainbat datu kontuan hartuz.

Beste alde batetik, hezkuntza sistemaren aldaketari dagokionez eta "Actuaciones de éxito en las escuelas europeas" (INCLUD-ED, 2011) txostenean ikusten dugun moduan, badira umeen ikasketak aurrera eramateko modu anitzak eta hauek errazten edota oztopatzen duten praktikak, hala nola, *taldekatzeak*. Hona hemen bereizten diren hiru motak:

1. TAULA. *Taldekatze motak*.

	MIXTOAK	HOMOGENEOAK	INKLUSIBOAK	
Zertan oinarrituak?	Aukeren berdintasunean.	Desberdintasunean.	Emitzen berdintasunean/ Aukeren berdintasunean.	
Taldekatzea	Heterogeneoa.	Homoginoa.	Heterogeneoa.	
Batera edo banandurik?	1)Ikaskuntza maila desberdinetako gelak.	1)Ikaskuntza jarduerak errendimendu mailaren arabera antolatzen dira.	1)Talde heterogeneoak giza baliabideen birrantolaketa batekin.	2) Talde heterogeneotako bikoizketak.
		a) Mailaren araberako taldeak gela desberdinetan banandurik.		
		b) Mailaren araberako taldeak gela berean banandurik.		
		2) Errefortzu taldeak, ohiko gela eta taldetik		

		aparte.		
--	--	---------	--	--

*Iturria: INCLUD-ED (2011).*

Dokumentu honetan agertzen den moduan eta ikerketa eta emaitzek urteen buruan erakutsi diguten moduan, ikasleen arteko desberdintasunak nabarmentzeak gizarte bazterketa sustatzeaz gain, ikasketa porrota dakar. Talde inklusiboak bultzatu behar ditugu, zeinetan guztiok aukera eta emaitza berdinak lortzeko eskubidea dugun. Horretarako, aurretik aipatu dudan moduan, ezinbestekoa da dialogoan eta harreman dialogikoetan oinarritzen den hezkuntza eredu bat ezartzea.

Horretaz gain, eta aurretik aipatu dudan prozesuaz aparte, ez dugu ahaztu behar zein nolako garrantzia daukan komunitatearen eta batez ere familien parte hartzeak haurren hezkuntza prozesuan eta eskola eta komunitatearen eguneroko bizimoduan. Izan ere, eragile hau oso garrantzitsua da, eta beste proiektuetatik bereizten duenatariko bat da, haurren hezkuntza porrota saihestuz.

## 2. TAULA. *Familien eta komunitatearen parte-hartze motak.*

1. INFORMATIBOA	Familiek jardueraz, zentroaren funtzionamenduaz eta hartu diren erabakiez informazioa jasotzen dute.
	Familiek ez dute zentroaren erabakietan parte hartzen.
	Gurasoen bilerek aurreko guztiaz informatzeko balio dute.
2. KONTSULTIBOA	Gurasoek erabakiak hartzeko eskubide oso txikia dute.
	Parte- hartzea familiei kontsultatzen

	datza.
	Parte-hartzea eskolako gobernu organoen bidez zuzentzen da.
3.ERABAKITZAILEA	Komunitateko kideek eskolako erabakietan parte hartzen dute, haien papera organo hauetan oso erabakigarria den heinean.
	Komunitateko kideek hezkuntza emaitzekin harremana duten heinean, zentroko kontuak gainbegiratzen dituzte.
4. EBALUATZAILEA	Familiek eta komunitateko beste kideek ere ikasleen hezkuntza prozesuan parte hartzen dute, haien aurrerapenak ebaluatzen lagunduz.
	Familiek eta komunitateko beste kideek zentroaren ebaluazio orokorrean parte hartzen dute.
5. HEZIGARRIA	Familiek eta komunitateko beste kideek eskolako hezkuntza jardueretan parte hartzen dute, bai eskolako ordutegian bai honetaz kanpo.
	Familiek eta komunitateko beste kideek euren beharrei erantzuten dieten hezkuntza programetan parte hartzen dute.

*Iturria: INCLUD-ED (2011).*

"Actuaciones de éxito en las escuelas europeas" txostenean ikusi dugun moduan (INCLUD-ED, 2011) familien eta komunitateko beste kideen parte hartzeak hezkuntza emaitzak hobetzen ditu eta porrota saihesten du. Gainera, eskola eta familien arteko harremana estutzen laguntzen du, batez ere, giza gutxiengo bateko ikasleen kasuan eta desgaitasun bat dutenen kasuan ere. Horretaz aparte, familien eta komunitatearen inplikazioak hezkuntza emaitzen desberdintasunak txikitzen laguntzen du eta baita berdinen arteko harremanak sustatzen ditu. Bestalde, aipatzeko da aurretik aipatutako bost parte-hartze horietatik era baikor batean eragin ahal dutenak azkeneko hirurak direla: erabakitzailea, ebaluatzailea eta hezigarria. Beraz, dialogoan oinarritzen den edozein eskola parte-hartze hauek sustatu beharko lituzke, horrela komunitate horren harremanak eta hezkuntza emaitzak asko hobetuko lirateke.

Baina nola lortu helburu hauek guztiak eta eskola eta komunitate bateko harremanak, funtzionamendua eta pentsamenduak aldatzea? Horretarako, proiektuaren barruan badira praktika batzuk zeinak harreman dialogikoak bultzatzen dituzten, eskola barruko zein kanpoko pertsonen artean, hala nola: hainbat motatako solasaldi dialogikoak, irakur-laguna, talde elkarreragileak ...

Lan honen hasieran aipatu dudan moduan badaude solasaldi dialogiko mota asko, baina Kukullagako eskolan literarioak landuko dituzte, horregatik hauek azaltzen zentratuko naiz. Metodologiari dagokionez oso dinamikoa eta erraza dela esan genezake. Saio bakoitzean partaideren batek moderatzaile papera hartzen du, guztiek hitz egiteko aukera izan dezaten eta baita solasaldia berdintasunean oinarrituta egon dadin ere. Bestalde, banan-banan partaide bakoitzak irakurritako liburuari, testuari ... buruzko iritzia aurkezten die beste guztiei. Pertsona horrek zer sorrarazi dion azaltzen du eta baita zergatik arreta deitu dion ere, kasu batzuetan aurreko tertuliei erreferentzia eginez. Modu horretan, dialogoa erabiliz, partaideek ideiak konpartitzen dituzte eta horrela lantzen ari diren gaia sakontzea ahalbidetzen dute, bide batez, euren ezagutzak handituz.

Bestalde, solasaldi dialogiko literarioekin zerikusirik handia duen praktika bat, irakur-lagunarena da. Ikerketa eta esperientzia askok erakutsi duten moduan, irakur-lagun bat



izatea oso onuragarria da ikasleentzat hainbat alderditatik. Baina, zertan datza irakur-lagun hori praktikan jartzeak? Bikote batzuk sortu behar dira, bikote hauek heterogeneoak izan behar dira irakurketa mailari dagokionez, horregatik ikasleak maila desberdinekoak izan daitezke edota talde barruan sor daitezke ere. Liburu bat aukeratzen da, kasu batzuetan ikasleek aukeratuko dute eta beste batzuetan, berriz, irakasleak edo irasleek. Horren ostean, bikotetik irakurmen maila altuagoa duenak besteari irakurtzen dio, horrela biek haien konpetentzia garatuz doaz, nahiz eta maila desberdin batean izan. Irakurketa bukatu ondoren eta baita bitartean ere bikoteko partaideek euren artean istorioa komentatu dezakete eta baita irakasleak proposatutako ariketaren bat burutu ere. Honekin guztiarekin, lortu nahi diren helburu nagusiak hauek dira:

#### A) IRAKURLEENTZAT:

- Irakurtzeko gaitasuna garatzea.
- Irakurketa egokia sustatzea, espresio, intonazio, erritmo, doinu, etab. egokiak erabiltzen ikasiz.
- Irakurtzeko grina sustatzea, entzulearen mailara adaptatuz.
- Liburuak zaintzeko ardura hartzea.
- Eskolako beste ikasleekin harremanak sustatzea, ikasle gazteagoak berdintzat hartuz eta harremanak estutuz.

#### B) ENTZULEENTZAT:

- Entzute aktiboa garatzea.
- Ahozko testuen ulermena hobetzea.
- Zeinu grafikoen bereizketa sustatzea.
- Haien gustu literarioa definitzea, hainbat liburu irakurri eta ezagutu ondoren.
- Liburu eta narrazioekiko interesa erakustea, pertsonaiak eta egoerak identifikatuz.
- Liburuekiko harremana estutzea eta normalizatzea.

- Liburuekiko errespetua sustatzea.
- Beste adineko jendearekin egoten eta jarduten ikastea.

Theurer, J.L. eta Schmidt, K.B.-ek (2008) euren esperientzietan oinarrituz, ikasle nagusiei liburuak ondo aukeratzeko aholku batzuk ematea edota zuzenean zerrenda bat eskaintzea aproposa dela esaten dute. Bestalde, oso garrantzitsua da ere haientzat aurreko prestakuntza aldia. Ikasle nagusiek jakin behar dute txikiekin eta txikiei irakurtzeko hainbat estrategia jokoan jarri behar dituztela, adibidez: ahots desberdinak sortu liburuko pertsonai desberdinentzat, beharrezko doinua eta intonazioa erabiltzea, erritmoa adaptatzea, ikasle gazteari titulua irakurri ostean istorioari buruzko igurikapen bat egitera gonbidatzea, liburuaren pasarte batzuetan geldiuneak finkatzea harekin hitz egiteko... Bestalde, bikoteen arteko lehenengo kontaktua oso arrotza ez izateko hainbat estrategia erabil daitezke, hala nola, aurretik eskutitzak haien artean bidaltzea. Horretaz gain, oso garrantzitsua da bi tutoreek haien artean harremana izatea eta egingo diren jarduera guztiak adostea ere.

Gainera, Vygotskyk esan zuen moduan, haurrek Garapen Hurbileko Eremuan (GHE) hobeto ikasten dute, hau da, haien testuinguruko pertsonekin elkarreaginez eta haientzat esanguratsuak diren jardueretan parte hartuz. Izan ere, modu horretan askoz azkarrago ikasten dute. Horrela aipatzen du Flint, T. K.-ek (2010) eta baita ideia honekin bat egiten duten haren ikerketaren emaitzak ere. Emaitza hauek honako hau begi bistan uzten dute irakur-lagunak Lehen Hezuntzan erabiltzeari buruz:

- Ikasleen alfabetizazio prozesuari laguntzen dio, nahiz eta hauek irakurle hasi berriak izan ere.
- Bikoteko kideen artean esanahia eraikitzen dute pixkanaka, alfabetizazio prozesuaren mesederako.
- Irakur-bikote batekin irakurtzerakoan askoz gehiago ikasteko aukera dago, bakarka irakurtzen denean baino.

Gainera, Christ, T. eta Wang, X. –ek (2012: 288) esaten zuten moduan Wells-i erreferentzia eginez, umeez ez dute ikasten hitz egiteko, baizik eta hitz egiten dutela ikasteko. Horretaz gain, praktika honen bitartez, haurrek mintzamina praktikatzeko aukera paregabea dute, izan ere, askotan entzule gisa egoten dira irakaslearekin gelan, baina kasu honetan berdinen arteko elkarrizketa sortzen denez, haien aukerak handitzen dira eta beraz, haien ikasketa prozesua aurrera doa.

#### 4. METODOLOGIA

Lan honen helburuak lortzeko, metodologiak hainbat bide hartu ditu. Ikas-Komunitateen eta honen inguruko gaien bibliografia aztertzeaz gain, honako teknikak erabiliko ditut ikerketa hau burutzeko:

- *Dokumentuen analisisa*: teknika honen bidez, ikertzen ari den gaiaren inguruko datu anitzak lor daitezke modu ezberdinetako dokumentuak aztertuz. Kasu honetan, Kukullaga eta San Antonio eskolako ibilbidea eta Ikas-Komunitateen proiektuan izandako partaidetza ezagutzeko eta datu zehatzak lortzeko baliagarria izango zait. ([1. ERANSKINA](#))
- *Sakoneko elkarrizketa*: teknika honetan ikertzaileak lortu nahi duen informazioaren araberako galdeketa oso zehatz bat prestatzen du, horrela ikerketaren helburuetara egokitzen diren datuak eta informazioa lortuko ditu. Nire kasuan, eskolako zuzendaritza taldeari egingo diot eta Ikas-Komunitateen proiektuaren inguruko partaidetzaren datuak lortzeko helburua daukat, horretarako galdetegi

bat prestatu dut, baina hau malgua izango da, beste informazio edo gairen bat jasotzeko prest bainago. ([2. ERANSKINA](#))

- *Eztabaida taldea*: metodo honen bidez datu kualitatiboak aztertzen dira. Horretarako hainbat pertsona biltzen dira eta jorratuko den gaiaren inguruko datuak botatzen dira. Beraz, datu guztiak bildu ondoren ikergai denaren emaitzak atera daitezke, hau da, ondorio batzuetara ailegatzen da. Oraingo honetan, teknika hau erabiliko dut Kukullaga eskolarekin batera egindako proiektua ebaluatzeko. ([4. ERANSKINA](#))

## 5. KUKULLAGAKO HISTORIA

Kukullagako eskola Haur eta Lehen Hezkuntzako Ikastetxe bat da. 2011/12 ikasturtean sortu zen herriko bi eskolen baturaren ondorioz (San Antonio eta Barandiaran). Ikastetxe hau Bizkaiko Etxebarri herrian kokatzen da, Bilbo Handiko Eskualdean. 10.600 biztanle ditu eta Bilbotik 7 Km-ra kokatzen da. Herriko hizkuntza nagusia Gaztelania da, nahiz eta udaletxetik gogor lan egiten duten Euskararen alde.

Horrek eragina dauka, noski, eskolako haurren ama hizkuntzan. Izan ere, 887 ume dira eta gehiengoaren lehen hizkuntza gaztelania da, horretaz gain, ikasle guztien %5 atzerritarra denez gero, haien ama hizkuntza askotan ez da ez euskara ez gaztelania. Beraz, eskola nahiko hizkuntza eta jatorri aniztasuna daukala esan genezake.

Antolaketari dagokionez, Kukullaga eskola osatzen duten ikasgelak 42 dira (21 H.H.-koak eta 21 L.H.-koak). 42 tutore daude, 28 espezialista eta 4 hezkuntza errefortzuko irakasle. Bestalde, hezkuntza bereziko departamentua hauek osatzen dute: konsultoreak, pedagogia terapeutikoko 3 irakaslek eta beste batek lanaldi erdia lan egiten duena.

Entzumen eta hizkuntzako irakasle bat (beste zentro batekin), hezkuntza errefortzuko 3 espezialista (institutuarekin batera) daude ere.

Bestalde, Ikas- Komunitateen proiektuan parte hartzen dute, San Antonioko eskolan lehendik egiten zutelako. Hala ere, oraindik egiteko asko dituzte eta egoerak ez dauka zer ikusirik duela hamabost urtekoarekin.

2000-2001 ikasturtean sartu zen San Antonioko eskola Ikas-Komunitatearen proiektuan, baina aurreko ikasturteetan hainbat prestakuntza eta ikasturte horretan bertan irakasleek zein ikasle eta familiek prestakuntza saioak jaso zituzten. Hasieran inork ez zuen ezagutzen zer zen Ikas- Komunitateen proiektua, informazioaren gizartea, ikaskuntza dialogikoa ezta horrelako ideia berritzaileen bat ezta ere. Baina Eusko Jaurlaritzak EAEko lau eskoletan proiektu hau frogatu ondoren, irakasleen formakuntzarako GARATU boletinean Ikas- Komunitateei buruzko ikastaro bat eskaintzen zen.

San Antonio ikastetxeko egoera oso txarra zen eta arazo hauek sumatzen zituzten irakasleek:

- Eskola porrota.
- Arazoak elkarbizitzan.
- Motibazio falta.
- Igurikapen baxuak.
- Gurasoen parte hartze eskasa.
- Irakasleriaren egonkortasun eza.

Arrazoi honengatik, ikastaro horretara joatea erabaki zuten eta haien arazoentzako irtenbidea izango zelakoan zeuden. Kurtso hori egin ostean (zuzendaritzako partaideek) eskolako eta komunitateko beste guztiei ikasitakoa eta proiektuari buruzko nondik norakoak azaltzea tokatzen zen. Horretarako, Ramón Flecha (CREAko partaidea eta Ikas-Komunitateko bultzatzaile nagusienetariko bat) eskolan bertaratu zen eta pertsona guztiei

proiektuaren nondik norakoak azaldu zizkien. Hala ere, klaustroaren %90a ados egon behar zenez eta irakasleen artean zalantzak eta beldurrak sumatzen zirenez, bozkatu baino lehen, lehengo fasea betetzea erabaki zuten zuzendaritzako kideek. Modu horretan denbora gehiago izango zuten pentsatzeko eta proiektua hobeto ezagutzeko, beraz, *sentsibilizazio fasea* burutu zuten. Fase hau antolatzeko arazo batzuk izan zituzten, izan ere, irakasle guztiek saio horretan egongo zirenez gero, haurrek ezin izango zuten klaserik jaso. Momentu horretan aldaketa hasi zen, irakasleek familia eta komunitate guztiari gertatutakoa azaltzerakoan, haiek euren laguntza eskaini zuten eta eskola haiei esker eta Magisteritza eskolako boluntarioei esker aurrera atera zen aste horretan.

Horren ostean, *erabakia hartu* behar zen halabeharrez, eta nahiz eta hasieran arazoak izan zituzten klaustroaren barruan, baietzak irabazi zuen eta San Antonio eskola Ikas- Komunitateen proiektuan sartu zen momentu horretan.

Geroxeago, *ametsaren fasean* benetan murgildu zen eskola hau. Ikasle, familia, auzokide guztiek "amets egin" zuten. Irakasleek euren aldetik "amets egiterakoan" lema hau erabili zuten: "goazen egitera geure seme-alabentzat nahiko genukeen eskola". Modu horretan guztiek haien kezkek eta nahiak agertu zituzten eta aurrerapauso handiak eman zituzten denbora labur batean.

Honen ostean *lehentasunak aukeratu* zituzten eta azkenik proiektua *abian jarri* zen. Horretarako ekintza anitz burutu zituzten. Komisio desberdinak sortu ziren zeinetan eskolako eta komunitateko pertsona askok parte hartzen zuten. Eskolako aldizkari bat sortu zen ([6. ERANSKINA](#)), metodologia aldatu zen, tutorizatutako liburutegi bat sortu zuten, errefortzuko klaseak jarri zituzten boluntarioak ematen zituzten heinean, IKTen erabilera bultzatu zuten bai ikasleen artean (ikasgelan), bai komunitate osorako (ikastaroak eskainiz), eskolaz kanpoko ekintzak eta jantoki ordukoak sortu ziren, gurasoentzako ikastaro ezberdinen eskaintza jarri zen abian, tertulia dialogikoak martxan jarri ziren (gurasoentzako zein haurrentzako zein mistoak), bizikidetza hobetu zen,

motibazioa igo eta absentismoa eta eskola porrota gutxitu egin ziren neurri batean, azkenik, eskolako eraikinaren eta terrenoaren zainketarako hainbat ekintza egin ziren.

Urteak pasa ahala egoera normalizatzen joan zen eta ekintza hauek eta metodologia gero eta arruntagoak ziren eskolako egunerokotasunean. Horretaz gain, guraso eta komunitatearen parte-hartzea oso altua izan zen ikasturte horietan, eta lehen aipaturiko ekintza askotan parte hartzeaz gain, haiek sortzen edo euren laguntza ematen zuten ere, adibidez: eskolako aldizkariaren produkzioan, eskolaz kanpoko ekintzetan, errefortzuko irakasle gisa, tertulietan ...

Baina, zoritzarrez San Antonio eskolarako eta baita Ikas-Komunitatearen proiekturako, 2011-2012 ikasturtean eskola hau eta Etxebarriko Barandiaren bildu egin ziren aurretik aipatutako Kukullaga eskola berria sortzeko. Ikasturte horretatik aurrera hainbat pausu eman dira proiektu honen alde apustu egiteko berriz ere, baina ezinezkoa da San Antonio eskolako egoera berdinean egotea proiektuarekiko momentu honetan. Izan ere bi eskola hauek biltzeak aldaketa asko suposatu ditu. Irakasle desberdinak bildu dira eta honekin batera metodologia eta ikuspuntu desberdinak ere, gainera batzuk ez dute ondo ezagutuko Ikas-Komunitateen proiektua ezta gutxiago ere honen inguruko formakuntzarik izan. Horretaz gain, eskola honetara doazen ikasleek profil desberdina dute, izan ere Etxebarrin eta San Antonioko biztanleria ez da guztiz berdina. Azkenik, ikasle kopurua zein irakasleena eta baita familiena ia laukoiztu egin da, beraz, parte-hartzea hainbeste jendearekin koordinatzea, noski, zailago suertatzen da.

Arrazoi hauengatik guztiengatik, lehen aipatu dudan moduan pausu txiki batzuk eman izan dituzte Kukullagako eskolan hiru ikasturte honetan Ikas-Komunitatei dagokienez. Jadanik talde-elkarreragileak Lehen Hezkuntzako 3., 4. eta 5. mailan egiten dituzte eta hurrengo ikasturteetan Lehen Hezkuntza osora zabaltzeko ideia daukate. Talde hauek astean behin egiten dira gela bakoitzarekin eta bertan parte hartzen duten ikasleek ordu eta erdi egoten dira hiru ekintza ezberdin burutuz. 3. mailan, adibidez, jarduera talde elkarreragile hauek sortzen dituzte eta haurrak hiruretatik pasatzen dira bakoitzean ordu

erdi emanaz. Hau guztia posiblea izateko boluntarioen laguntza behar da, izan ere, irakasleekin bakarrik ezinezkoa litzateke. ( [3. ERANSKINA](#) )

Bestalde, badira ere Kukullagan tertulia dialogiko literarioak ere. Orain arte Lehen Hezkuntzako talde batzuekin bakarrik egiten zen baina ikasturte honetan, gure proiektuan ikusi dugun bezala eta irakur-lagunarekin batera Haur Hezkuntzara zabaldu egin dira, 5 urteko gelara hain zuzen ere.

Ikusten den moduan pixkanaka-pixkanaka metodologia desberdin hau haien eguneroko ordutegian txertatuz doa, beraz, hemendik ikasturte batzuetara espero dute proiektuan berriz ere guztiz sartuta egotea, eta komunitatearen zein klaustroaren adostasuna berriz ere lortzea.

## 6. KUKULLAGA ESKOLAKO SOLASALDI DIALOGIKO ETA IRAKUR-LAGUNAREN PROIEKTUA

### 6.1. SARRERA

Duela ikasturte batzuk Kukullaga eskola Ikas-Komunitatearen barruan kokatzen da, hau da, ikaskuntza dialogikoaren oinarri batzuk aintzat hartzen ditu haren proiektuak eta programak prestatzerako orduan. Orain arte, ikaskuntza dialogikoak proposatzen dituen jardueren artean **talde elkarreagileak** burutu dituzte bakarrik, hauek astean behin Lehen Hezkuntzako zikloan eginez. Aipatzekoa da, hasieran bakarrik L.H.-ko 4. mailan egiten zirela soilik, baina ikasturteak pasa ahala, praktika hau zabalduz joan da, eta gaur egun 3. mailatik, 6. mailara arte parte hartzen dute saio hauetan.

Hala ere, Kukullaga eskolako ikusmira ikaskuntza dialogikoari dagokionez, harago joan da oraingo honetan. Informazio gizarteko kide garen heinean dialogoa eta elkarlana



txikiak garenetik lantzea komenigarria dela deritzote. Arrazoi hauengatik, Haur Hezkuntzako haurrek Lehen Hezkuntzako nagusiekin *tertulia dialogikoetan* parte hartzea erabaki dute. Jarduera honen bidez honako helburu hauek lortu nahi dira:

## 6.2. HELBURUAK:

### EPE LABURRERAKO:

- Ikasle guztiek jardueraz gozatzea.
- Haien arteko harremanak estutzea.
- Ikasle zein irakasleek gustura egotea eta errepikatzeko gogoak izatea.

### EPE LUZERAKO:

- Hizkuntza konpetentzia hobetzea, bai ahozkoa (mintzamina landuz), bai idatzizkoa ( irakurketaren bidez ).
- Irakurtzeko grina eta ohitura sustatzea.
- Literaturaz eta irakurketaz gozaten ikastea.
- Elkarri entzuten ikastea.
- Ikasle- ikasle eta ikasle- irakasle arteko harremanak hobetzea eta indartzea.
- Solidaritatea eta pentsamendu kritikoa garatzea.
- Norbanakoaren estimua handitzea.

## 6.3. METODOLOGIA


Ekintza hau aurrera eramateko eta ezarritako helburuak lortzeko hainbat alderdi zehaztea komenigarria litzateke. Lehen aipatutako moduan, 6. mailako ikasleek 5 urtekoekin bilduko dira, hala ere, adinak alda litezke nahi izanez gero. Hala ere, pentsatu dugu ikasle hauekin errazago izango dela tertulia egitea, izan ere haien etapako nagusienak dira. Taldeak zeintzuk izango diren erabaki ondoren, tertulia zein libururen

inguruan egingo den erabaki beharko da. Gure kasuan “Oihaneko liburua” lantzea pentsatu dugu. Horren ostean, ikasleei jakinarazi behar zaie ekintza hori burutuko dela eta 6. mailako ikasleei liburu bana eman behar zaie, haiek aurretik irakur dezaten eta presta dezaten. Hori behin eginda, eta datak finkatuta izanda, 6. mailako ikasleak eta 5 urtekoak bilduko dira talde ezberdinetan haien irakasleekin batera. Irakasleek sarrera bat egingo dute haurrak pixka bat testuinguruan kokatzeko eta horren ostean bikoteak esleituko ditu. Ikasle nagusiek 5 urteko ikasle bana izango dute. Nagusiek ipuina irakurriko diete txikiei eta haiek orrialde *bakoitzetik gehien gustatu zaien hitza aukeratu* beharko dute, nagusiek post- it batean apunta dezaten. Behin liburua kontatuta bikoteak istorioari buruz hitz egiteko aukera izango du, edota ikasle txikiak ipuina berriz kontatzeko aukera ere.

Beste egun batean, ikasle eta irakasle guztiak bilduko dira eta *tertulia* bera egingo dute. Irakasle bat moderatzailea izango da eta hurrei hitza ematen joango da. 6. mailako ikasleek bere bikoteak zer hitz aukeratu duen esan beharko du, eta 5 urtekoak bere arrazoiak azaldu beharko ditu. Modu horretan, haur guztiek parte hartuko dute, eta pixkanaka ezarritako helburuak lortzen joango dira ([5. ERANSKINA](#)).

#### 6.4. BALIABIDEAK

**Materialak:** OIHANEKO LIBURUA (AIZKORRI ARGITALETXEA, 2007)



**Inmaterialak:**

Ikasleak.

Irakasleak.

## 6.5. EGUTEGIA

Tertulia eta honen prestakuntza 2014ko urtarrilaren 22an eta 24an arratsaldez egingo dira. Saio bakoitzak ordu erdi eta ordu bete inguru iraun egingo du, beharren arabera.

 **Urtarrila 2014 Enero** 

Astelehena - Lunes	Asteartea - Martes	Asteazkena - Miércoles	Osteguna - Jueves	Ostirala - Viernes	Larunbata - Sábado	Igandea - Domingo
		1	2	3	4	5
6	7	8	9	10	11	12
13	14	15	16	17	18	19
20	21	22	23	24	25	26
27	28	29	30	31		

Ekintza ondo ateratzen bada, hilabetean behin bi egunetan liburu ezberdinari buruzko tertuliak egin daitezke, eta baita taldeak zabalduz joan gaitzke adin ezberdinetako haurrek parte har dezaten. Adibidez, hurrengo egun hauetan izan daitezke:

 **Febrero 2014 Otsaila** 

Astelehena - Lunes	Asteartea - Martes	Asteazkena - Miércoles	Osteguna - Jueves	Ostirala - Viernes	Larunbata - Sábado	Igandea - Domingo
					1	2
3	4	5	6	7	8	9
10	11	12	13	14	15	16
17	18	19	20	21	22	23
24	25	26	27	28		

## 7. ONDORIOAK

Argi dago, epe luzerako ezarritako helburuak lortu diren edo ez momentu honetan ebaluatzea oso zaila dela. Izan ere, proiektu honetako jarduerak bi aldiz bakarrik burutu egin dira, eta, beraz, lortutako emaitzak ez dira nahikorik. Aitzitik, epe laburrerako ezarritako helburuak lortu direla nahiko argi ikus dezakegu. Izan ere, solasaldi eta irakur-lagunaren ekintzetan parte hartu duten tutoreekin izandako eztabaida taldean ondorio horretara ailegatu gara. Saio hauetan ikusi dugun moduan, ikasle guztiek hein handi batean, jardueraz gozatu dute, eta baita parte hartu duten irakasleek ere. Horrez gain, berdinen arteko zein ikasle-irakasle arteko harremanak estutuz joan dira eta beste plano batean proiektatu dira. Hau da, eguneroko bizimoduarekin zer ikusi handirik ez duen jarduera honekin, elkarren arteko harreman desberdinak izateko aukera izan dute.

Bestalde, bi saio hauekin aukera txiki bat izan dugu, epe luzerako hainbat helburu bete daitezkeela ikusteko. Izan ere, ikasleek lexiko berria ikasi dute, haien mintzamina praktikan jarri dute, hainbat balore landu eta ikasi dituzte, literaturarekiko harremana estutu dute ... Beraz, suposa dezakegu kasu batzuetan praktika edo saio hauek epe luzera eragin oso baikorra izan ditzaketela. Ikusi dugun moduan, irakasleak zein ikasleak gustura egon dira jarduera honekin eta lehenengoek apustu egingo lukete hurrengo ikasturtean berriz ere egiteko, eta Ikas-Komunitateen proiektuaren barruan gehiago murgiltzeko eta orain arte egindakoak hobetzeko. Aitzitik, irakasleek euren buruen formakuntza falta sumatzen dute. Izan ere, proiektu honi buruz eta orokorrean Ikas-Komunitateei buruz informazio gutxi jaso dutela uste dute. Beraz, hobetzeko zeregin bat hori izango litzateke, modu horretan, jarduera hauek eraginkorragoak bilakatuko lirateke guztientzat. Horrez gain, irakasleek uste dute ere, solasaldi dialogiko literario zein irakur-lagunaren jarduerak

komunitatearekiko hedadura gehiago izan beharko luketela, beraz, hurrengo ikasturteetan alderdi hori hobetzea proposatzen dute.

Beraz, nahiz eta hobetzeko arlo batzuk geratu diren, proiektu hau eraginkorra izan dela ondoriozta dezaket. Aurretik ikusi dugun moduan, Kukullaga eskola Ikas-Komunitateen proiektuan bere lehenengo pausoak ematen dabil, horregatik honen mesederako egiten den edozer onuragarria izango da eskolarentzat eta noski komunitatearentzat.

Bukatzeko, eta nire lanari orokorrean dagokionez, emaitza guztiz aberasgarri eta baikorrak lortu ditudala esan beharko nuke. Ikas-Komunitateen metodologia, ikaskuntza dialogikoa eta informazioaren gizartearen oinarriak behin ezagutuak, hezkuntza sistema alda daitekeela eta alda beharko litzatekeela uste dut. Lan honetan zehar ikusi izan dudana moduan, bai teorikoki, bai praktikoki (Kukullaga eskolako proiektuaren bidez), gure gizartearen beharrianak aldatu egin dira, eta egungo hezkuntza tradizionalak ez ditu behar horiek asetzen. Aitzitik Ikas-Komunitateen metodologia erabilia, gure beharrik asetzeaz gain, hezkuntza zein gizarte inklusioak lor ditzakegu. Gainera, aldaketa horiek ez dute ekonomikoki inbertsio handirik eskatzen, bai ordea giza baliabideen eraldaketa. Baina, ikerketek erakutsi izan diguten moduan, komunitatea eta eskola bateratzen badira eta proiektuaren alde apustu egiten badute, lortzen diren emaitzak guztiz baikorrak dira.

Zoritarrez, gure herrialdean eta ia mundu osoan ideia hau ez dago oraindik zabalduta, eta aldaketa aproposak egin beharrean, gaurko hezkuntza sistema gero eta okerrago bihurtzeko politikak aplikatzen omen dira. Beraz, azkeneko ondorio gisa esan dezaket, nik Ikas-Komunitateen alde apustu egiten dudala eta hezkuntza tradizionala alde batera uzteko esfortzuak egin behar ditugula guztion artean. Horretarako, lan honetan zehar azaldutako proiektuak eta jarduerak edozein eskolatan aplikatzearen alde nago.

Bukatzeko eta lehen aipatu dudana moduan lan hau guztiz aberasgarria izan da niretzat eta asko ikasi dut hilabete hauetan, gainera Etxebarriko eskolari nire laguntza eskaini izana oso garrantzitsua izan da niretzat. Beraz, Haur Hezkuntzako gradu hau amaitzeko eta ikasitako guztia borobiltzeko eta osotzeko lan ezin hobea izan dela uste dut.

Honengatik guztiagatik, hemen islatutako guztia nire irakasle moduko etorkizunean aplikatzeko aukera izatea espero dut.

## 8. BIBLIOGRAFIA

- Aubert, A., Flecha, A., Flecha, R., García, C., & Racionero, S. (2008). *Aprendizaje dialógico en la sociedad de la información*. (1.ed.). Barcelona: Hipatia.
- Batzuk. (2007). *Oihaneko liburua*. Aizkorri.
- Christ, T., & Wang, X. (2012). Young children's opportunities to use and learn theme-related vocabulary through buddy 'reading'. *Literacy Research And Instruction*, 51(4), 273-291. doi:10.1080/19388071.2011.568671
- Flint, T. K. (2010). Making meaning together: Buddy reading in a first grade classroom. *Early Childhood Education Journal*, 38(4), 289-297. doi:10.1007/s10643-010-0418-9
- <http://colegiojorgejuan.es/archivos/biblioteca/apadrinamiento/index.htm>
- Ikas Komunitateak. (2014). Comunidades de aprendizaje. schools as "learning communities". Retrieved 04/09, 2014, Retrieved from <http://utopiadream.info/ca/>
- Includ-ed (2011). Actuaciones de éxito en las escuelas europeas. Ministerio de Educación
- M<sup>a</sup> Luisa Jaussi (Coord.)(2002). Euskadiko Ikaskuntza Komunitateak.Vitoria-Gasteiz. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- Theurer, J.L.; Schmidt, K. B. (2008) Coaching Reading Buddies for Success, *The Reading Teacher* 62(3) , 261-264.
- Utopía y educación. (2012). Retrieved 04/25, 2014, Retrieved from <http://www.utopiayeducacion.com/2006/06/tertulias-dialgicas.html>